

DBH2 GIZarte: "Oihala altxatu eta Erdi Aroa agertzen da" Ezagutzak

Helburu didaktikoak	Ebaluazio adierazleak
<p>1. Mapa historikoak eta denbora-lerro konplexuak aztertuz eta alderatuz, Erdi Aroan zehar lurraldeek izandako bilakaera kronologiko eta geografikoa deskribatu.</p>	<p>1.1. Mapa historikoetan Iberiar penintsulak izandako aldaketak identifikatu ditu.</p> <p>1.2. Mapa dinamikoa interpretatuz, Iberiar penintsulako erresumen bateratze prozesua ulertu duteta bilakaera hori deskribatzeko denbora lerroa osatu du.</p>
<p>2. Erdi Aroko hainbat gertaera eta aginte-moduen bilakaeran kausa-ondorio erlazioak eratu eta azaldu.</p>	<p>2.1. EAEko aginte-moduen ezaugarrien arteko kausa-ondorio erlazioak eratu ditu.</p> <p>2.2. Diagrama interpretatuz, Erromatar Inperioaren gainbeheraren kausa eta ondorioei buruzko galderei erantzun die.</p> <p>2.3. Erromatar Inperioaren gainbeheraren kausa eta ondorioak lotu eta azaldu ditut gutxienez hiru mugimendu eginez eta lokailu egokiak erabili ditu.</p>
<p>3. Idatzizko iturrien azterketa kritikoan oinarrituz (analisi, konparaketa eta balioespena), gertaerei buruz emandako datuen egiazkotasuna balioetsi eta egoki justifikatu.</p>	<p>3.1. Emandako idatzizko iturrien datuen egiaztasuna eta idazlearen objetibotasunari buruzko galderak inferitu ditu.</p> <p>3.2. Informazio-iturrien egokitasuna balioetsi du.</p>

<p>4. Erdi Aroko gizarte-antolamenduaren ezaugarri nagusiak kontzeptu-mapa batean laburbildu, IKT baliabideak erabiliz.</p>	<p>4.1. Testu nahiz irudietatik jasotako informazioa taulan laburbildu du:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Kontzeptu esanguratsuak identifikatu ditu. - Kontzeptuen arteko erlazioak antolatu ditu. - Lotura-hitzak sortu ditu. <p>4.2. Kontzeptu-mapa osatu du:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Kontzeptu-maparen izenburua zehaztu du. - Kontzeptuak era egokian antolatu ditu. - Kontzeptuen arteko geziak egoki kokatu ditu. - Lotura-hitzak apropos erabili ditu.
<p>5. Hainbat euskarritatik (irudia, bideoa, testu idatzia) informazioa jasoz eta hainbat euskarri erabiliz, Erdi Aroko gizataldeen bizimodua deskribatu.</p>	<p>5.1. Erdi Aroko gizarteari buruzko deskribapena dagokion kontzeptuekin osatu du.</p> <p>5.2. Gizarte-harremanei buruz eskatutako informazioa taulan antolatu du.</p> <p>5.3. Erdi Aroko gizarteari buruzko kontzeptuak identifikatu eta adierazi ditu.</p>
<p>6. Erdi Aroko gertaera jakinek pertsonaiei eragindako emozioak eta horiek eragindako jokaerak nahiz bizipenak adierazi, garaian garaiko gertaeratan oinarrituz eta norbera haien tokian jarritz.</p>	<p>6.1. Garaiko pertsonen ezaugarriak kontuan izanik pertsonaiak eta bizipenak erlazionatu ditu.</p>
<p>7. Gertaera historiko bat antzezteko haren antzerki-gidoia sortu elkarlanean, argumentua idatziz eta hura elkarrizketara egokituz.</p>	<p>7.1. Antzerki gidoiak dituen elementuak dagokion lekuan txertatu ditu.</p> <p>7.2. Antzerkiko pasartearen argumentua edo elkarrizketa osatu du.</p>